

ONDARROA'N BIZKAIERAZ

Jaunak:

EUSKERAZAINTZA, danok dakizuen lez, Euskeraren Erri Akademia da. Luzaro ibilli gara gure legezatzearen alde lanean. Azkenean be 1980'ko Gabonilla'ren 10'eko erabagiz, gure Akademi au aintzat artu eta erriaren onerako lez onartua izan da, «de utilidad pública».

Gure jokabidea garbia izango da. Danok gura dogun batasun baten aide jokatuko dogu, baiña *erri euskeraren* bidez lan eginda.

* * *

Orretarako erri euskera indartu gura dogu, uste dogulako erri euskeratik etorriko dala gure euskeraren iraupen eta bizia. Eta erri euskeraren ezaupide ta erabilteak ekarriko dau batasun jator baten bidea.

Erri euskera indartzeko, bakotxak bere tokian bereari bizitasuna emotea bearrezko da. Zenbat eta bakotxarena geiago indartu, errez eta erosoago egingo dogu, edo joko dogu gura dogun batasunera, eta batasun au atsegin eta gogokoago izango da danon-

tzat, erabilten dogun euskera jator baten bidez lortua izango dalako.

Orretarako gu gara alegindu bear gareanak bakotxarena indartzen, euskera erabilteko bide ziurra ortik datorrelako.

Pozez ikusi dogu oraintsu Ondarroa'ko ziñegotziak (kontzejalak) egindako eskabidea (E. A. J.'ko ziñegotziak) eta bere ondorena, *Ondarroa'ko Udalak bere goraberatarako bizkaiera erabiltearen alde Jorraillaren 2'ko Batzar orokorrean artutako erabagia*.

* * *

Bizkai'ko Udal guztiak bardin egingo ba'lebe, uste dogu euskerak nortasun eta jotartasun betea artuko leukela Bizkaia'n, eta jotortasun ori, Euzkadi osorako maillan zabaldu gura dan benetako euskera batu baten ezaupiderako mesedegarri izango litzake-la, *bear dogun batasunik lortuko ba'da, erriaren euskera jotarretik egin bear dalako, eta ez euskeraren oiñarririk ez daukan jokabide batetik*.

I PUIN-SARIKETA

OARRA

EUSKERAZALEAK TALDEA'ren Lan-Etxean ainbat ipuin artu dira sariketarako eta epai-maikoak lanean diardue sariak zein zeñeri emon ebazteko, baiña lan ori esandako epearen barruan ezin amaitu izan dabe.

Illebetz luzatzen dogu ba epaia emoteko epea eta urrengo ZER aldizkarian agertuko da erabagia, eta saria irabazi daben iru ipuiñak be zenbaki orretan agertuko doguz.

EUSKERAZALEAK